 <p>Pasaia Portua Puerto de Pasajes</p> <p>Pasaiako Portuko Agintaritza Autoridad Portuaria de Pasajes</p>	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 1 / 10


PROZEDURA / PROCEDIMIENTO

PHK-PGL-004

EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA


Berrikuspena Revisión	Data Fecha	Oharrak Observaciones
00	2009-06-25	

Onartuta Aprobado		Jasota Recibido	
Lehendakaria El Presidente		Hartzailea Recibe	
HKS-SGL			

 <p>Pasaia Portua Puerto de Pasajes</p> <p>Pasaia Portuko Agintaritzaren Autoridad Portuaria de Pasajes</p>	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 2 / 10

AURKIBIDEA:

1.	HELBURUA.....	3
2.	APLIKAZIO-EREMUA	3
3.	ERREFERENTZIAK.....	3
4.	ERANTZUKIZUNAK.....	3
5.	GARAPENA	4
	5.1. Lanpostuen Hizkuntza Eskakizunak	4
	Konpetentziak kudeatzeko sistema.....	4
	86/1997ko Dekretua.....	5
	PPAko sistema.....	5
	5.2. Prestakuntza.....	6
	Enpresaren prestakuntza plana	8
	Giza garapenerako plana, ikastaroak lan orduz kanpo	9
	5.3. Kontratazio berriak eta barne sustapena.....	9
	5.4. Jarraipena eta Ebaluazioa	10
6.	GAIARI BURUZKO AGIRIAK.....	10
7.	ERANSKINAK	10

 <p>Pasaiako Portua Puerto de Pasajes</p> <p>Pasaiako Portuko Agintaritzaren Autoridad Portuaria de Pasajes</p>	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 3 / 10

1. HELBURUA

Prozedura honen helburuak honako hauek dira:

- Lanpostuei hizkuntza eskakizunak ezartzeko irizpideak zehaztea.
- Euskarako ikastaroetarako baldintzak zehaztea.
- Lanpostuak langilez hornitzeko kanpo kontratazio eta barne sustapen prozesuetan euskarazko gaitasuna baloratzeko irizpideak zehaztea.
- Euskarazko gaitasuna kompetentzien araberako kudeaketa ereduan txertatzea.

2. APLIKAZIO-EREMUA

Prozedura hau honakoei aplikatuko zaie:


- PPAko lanpostu guztiei.
- PPAko langile guztiei.

3. ERREFERENTZIAK

- Pasaiako Portuko Agintaritzako Lehendakariak 2005eko martxoaren 8an onetsitako Hizkuntza Politikarako Dokumentua.
- Pasaiako Portuko Agintaritzako Lehendakariak 2009ko ekainaren 3an onetsitako Hizkuntzak Kudeatzeko Sistemaren hiru prozedurak: irudia eta komunikazioa, kanpo harremanak eta barne harremanak.
- Espainiako Konstituzioaren 3. Artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua, non finkatzen baitira Erkidegoko hizkuntza ofizialak.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilpena arautzen duena.
- 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, bestek beste Euskal Autonomia Erkidegoko bezero eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak zehazten dituena.
- 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Elkarteko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena.
- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak LanHitz programaren baitan sortutako Erreferentzia Marko Estandarra (EME), erakunde bateko hizkuntza alderdiak definitzen dituena.
- Pasaiako Portuko Agintaritzako kompetentzien kudeaketa eredia.

4. ERANTZUKIZUNAK

- Pasaiako Portuko Agintaritzako langile guztiak:
 - Prozedura honen irizpideak errespetatzea.
 - Prozedura hau urratzen dela ikusi edo jakinez gero, gertaera hori idatziz jakinaraztea arduradun zuzenari, euskara batzordeko kideren bati edo euskararen plana koordinatzen duen pertsonari.
- Euskara Batzordea:
 - Urtean behin, jarraipena egiteko egokiak diren neurketak egitea.

 <p>Pasaiaiko Portua Puerto de Pasajes</p> <p>Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Autoridad Portuaria de Pasajes</p>	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 4 / 10

- Prozeduraren ez-adostasunak jaso eta aztertzea, eta hobekuntza-proposamenak egitea.
- Urtero egoera neurtzea eta emaitza horiek zuzendaritzari jakinaraztea.
- Euskara menperatzen ez duten edo erabiltzeko zailtasunak dituzten langileei laguntzea, eta testuen itzulpenak eta horien zuzenketak egitea edo kudeatzea.

5. GARAPENA


5.1. Lanpostuen Hizkuntza Eskakizunak

Pasaiaiko Portuko Agintaritzako lanpostu bakoitzari dagokion euskarazko hizkuntza eskakizuna esleitu behar zaio, konpetentziak kudeatzeko sistemari jarraiki. Eta era berean, konpetentziak kudeatzeko sistemako euskara mailak eta 86/1997 Dekretuan zehazten diren hizkuntza eskakizunak baliokidetu nahi dira.

Konpetentziak kudeatzeko sistema

Sistemaren arabera euskarako mailak ezartzeko irizpide hauek kontuan hartu behar dira:

1. Komunikazioak ohiko zereginetan duen **maiztasuna edo garrantzia**. Komunikazioak bere eguneroko lanean suposatzen duen denbora, ahoz nahiz idatziz, lankideekin nahiz erabiltzaileekin, erakundeekin edo kanpoko eragileekin. Zerbitzuko lankideekin izandako harremanak eta harreman informalak ez dira kontuan hartzen.
 - 1.1. Maiztasun handia:
 - Bere lanaldiaren zatirik handiengan lankideekin edo kanpokoekin harremanetan ari da.
 - Bere lanaldiaren zatirik handiengan irakurtzen edo komunikazio idatziak prestatzen ari da.
 - Bere lanaren muina komunikazioa da.
 - Igorlea da, hartzailea baino gehiago.
 - Komunikatuz gaiak garatu, konbentzitu, negoziatu behar du.
 - 1.2. Maiztasun ertaina:
 - Bere lanean dokumentu asko erabiltzen ditu baina gutxi egiten ditu.
 - Lankideekin eta kanpokoekin harreman gutxiko lanpostua.
 - Hartzailea da, igorlea baino gehiago.
 - 1.3. Maiztasun txikia:
 - Lanaldiaren zatirik handiena esku lanak egiten edo lan teknikoak egiten pasatzen du.
 - Normalean, lankideekin eta arduradunekin bakarrik hitz egiten du.
 - Ahozko edo idatzizko komunikazioak noizbehinkakoak dira bere lanean.
2. Komunikazioaren **aniztasuna eta konplexutasuna**. Honako alderdi hauek kontuan hartzen dira: edukien aniztasuna, gaietan berrikuntza, edukiaren zailtasuna.
 - 2.1. Simplea
 - Komunikazio gaiak errepikatu egiten dira, ia beti berdinak dira. Testuinguru mugatua.
 - Zailtasun gutxiko gaiak dira, errepikatzen direnez edo edukiz lagunartekoak direnez simpleak.
 - Bere lana egiteko ez da dokumentazioa goitik behera ulertu behar.
 - 2.2. Askotarikoa

	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 5 / 10

- Bere lanean gai dezente daude. Testuinguru zabala.
- Gaiak halako konplexutasun bat dute.

2.3. Konplexua

- Gai konplexuak.
- Gai asko.
- Ustekabeko gaiak edo gai berriak izan ditzake.

86/1997ko Dekretua

Dekretuaren arabera honako hauek hartzen dira kontuan hizkuntza eskakizunak zehazteko: **A, B, C modura definitutako hizkuntza gaitasunaren hiru mailak ahozko nahiz idatzizko hizkuntza trebetasun** bakoitzean (ulermena, mintzarena, irakurmena eta idazmena).

- **A mailak** Administrazioan behar den oinarri-oinarrizko komunikazio-gaitasuna erakusten du, bai hizkuntz erabilerari berari dagokionez, bai berariaz lanerako behar den gaitasunari dagokionez ere. Maila hauxe da herri-administrazioaren lan-esparruan beharrezko den gutxieneko gaitasun komunikatibo-funtzionalerako atalasea.
- **B mailak** komunikazio-gaitasun ertaina erakusten du, nahikoa da hizkuntzaren erabilera arruntari dagokionez, baita bere lan-esparruan erabiltzeko ere, baina maila mugatua da gai espezializatuagoetan erabiltzeko.
- **C mailak** erakusten duen komunikazio-gaitasunak ez du inolako mugarik, ez erabilera arruntari dagokionez, ezta berariazko gaiei dagokionez ere.

Dekretuaren arabera lanpostuei izendatuko zaizkien hizkuntz eskakizunak honako hauek dira:


- 1. hizkuntz eskakizunean, benetako testuak ulertzea eskatzen da (idatzizkoak zein ahozkoak). Komunikazio-gaitasuna mugatua da maila honetan, bai ahoz, bai idatziz. Behe-mailako ulermen-maila da.
- 2. hizkuntz eskakizunean, oinarriko maila eskatuko da hizkuntz trebetasun guztietan, idazmenean izan ezik. Alor horretan behe-mailako gaitasuna eskatuko da.
- 3. hizkuntz eskakizunean, oinarriko maila eskatuko da hizkuntz trebetasun guztietan.
- 4. hizkuntz eskakizunean, gaitasun-maila jasoak eskatzen dira lau hizkuntz trebetasunetan.

	AHOZKO TREBETASUNAK		IDATZIZKO TREBETASUNAK	
	ULERMENA	MINTZAMENA	IRAKURMENA	IDAZMENA
1 HE	B	A	B	A
2 HE	B	B	B	A
3 HE	B	B	B	B
4 HE	C	C	C	C

PPAko sistema

Hori guztia kontuan hartuta, PPAko lanpostuek honako euskarako maila eta eskakizuna izan dezakete; eta maila edo eskakizun horien baliokidea Hizkuntzen Europako Marko Bateratuaren arabera honako hauek dira:

- 1. maila
- 2. maila - 1. euskara eskakizuna - B-1

	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 6 / 10

- 3. maila - 2. euskara eskakizuna - B-2
- 4. maila - 3. euskara eskakizuna - C-1

Lanpostu bakoitzari euskarako mailak edo eskakizunak ezartzerakoan kontuan hartzen diren irizpideak aipatu ditugu. Hori guztia kontuan hartuta honako hauek izango dira Pasaia Portuko Agintaritzako lanpostuen euskara mailak eta eskakizunak:

		INFORMAZIOA		
		SINPLEA	ASKOTARIKOA	KONPLEXUA
MAIZTASUNA	HANDIA	2. maila (HS) 1. HE (BABA) B-1	3. maila (HA) 2. HE (BBBA) B-2	4. maila (HK) 3. HE (BBBB) C-1
	ERTAINA	2. maila (ES) 1. HE (BABA) B-1	3. maila (EA) 2. HE (BBBA) B-2	4. maila (EK) 3. HE (BBBB) C-1
	TXIKIA	1. maila (TS) - -	2. maila (TA) 1. HE B-1	3. maila (TK) 2. HE B-2

Urtero, urtarrileko lehen hamabostaldian FHK 038 (lanpostuen hizkuntza eskakizuna) eta FHK 039 (langileen hizkuntza gaitasuna) formularioak eguneratu behar dira.

Zerrendan, halaber, maila horien eta ziurtagiri ofizialen arteko baliokidetasunak azaltzen dira.

Bestalde, PPAAn lan egiten duten pertsonen zerrenda eguneratu bat ere badaukagu. Bertan langileen egungo hizkuntza eskakizunak eta lanpostu bakoitzaren xede eskakizunak azaltzen dira.

Bi zerrendak alderatuz, PPAko hizkuntza gaitasunen egoera zein den ikus dezakegu.

5.2. Prestakuntza

PPAk bi helburu ditu euskarako gaitasunaren inguruan Pasaia Portuko Agintaritzaren Hizkuntza Politika aplikatzeko eta Hizkuntzak Kudeatzeko Sistemaren hiru prozeduretan araututakoa betetzeko:

- Batetik, langileek bere euskarako gaitasuna etengabe hobetzea.
- Bestetik, langileek beren lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatzea eta ondorioz lanpostuari dagokion gaitasun maila lortzea.

Horretarako, prestakuntza planen bidez, euskara ikasteko eta beren ezagutzak hobetzeko aukera ematen die. Ikastaroak beti ere arloaren, sailaren edo departamentuaren beharrak kontuan hartuta programatu eta antolatuko dira.


Ikastaroetan parte hartzen duten langileen lan karga aztertuko da eta lan karga hori doitu egingo da ikasleak euskara ikasteko dituen baldintzen arabera.

Laneko librantzak eta ordaineko orduak arrazoizkotasun irizpideak eta zerbitzuaren eta Pasaia Portuko Agintaritzaren beharrak kontuan izanda hartuko dira, ondoko irizpideen arabera:

- Lanean egin beharreko orduak ezingo dira ordubete baino gutxiagokoak izan.
- Langile bakoitzaren jatorrizko lan ordutegi mota errespetatu behar da.
- Orduen konpentsazioa beti modu berean hartzeko ahaleginak egingo dira.

Laneko librantzak eta ordaineko ordu horiek ezin izango dira oporraldia luzatzeko pilatu, behar bezala egiaztatutako kasu berezietan izan ezik, ezta, inolaz ere, aparteko lanordutzat ordaindu.

Euskarako ikastaroa behin hasi ondoren, hura behar bezala egiaztatutako arrazoi sendorik gabe uzten duenak arautan aitortutako eskubide guztiak galduko ditu.

 <p>Pasaia Portua Puerto de Pasajes</p> <p>Pasaia Portuko Agintaritzaren Autoridad Portuaria de Pasajes</p>	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 7 / 10

PPAk banakako jarraipena egingo du ikastaroetara joateari eta ikas prozesuari buruz. Horiei buruz jasotako txostenetan, egiaztatu gabeko huts egiteak edo aprobetxamendu falta daudela nabarmentzen badu, ikastaroa etetea eta, gainera, kasua bada, diziplinako erantzukizunak eskatzea ere erabaki dezake. Nolanahi ere, interesatuari eta langileen ordezkariari entzun ondoren hartuko da erabaki hori.


Langileek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Langileek programatutako ikastaroetara derrigorrez joan beharko dute, hurrengo artikuluetan xedatutako baldintzen arabera.
- Langileek gutxienez %80ko asistentzia izan beharko dute diharduten ikastaroan. Ondorioz, ikastaroa hasi ondoren, langileak huts egindako orduak ikastaro osoaren % 20tik gorakoak direnean, langileak utzi egin beharko du ikastaroa.
- Horrela eten ahal izango da, bakarrik, ordu kredituaren kontaketa.
- Kapitulu honen barruko langileek aurkeztu egin beharko dute norberaren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko egiten diren azterketetara horretarako maila duen unetik aurrera, enpresan indarreko dauden eskakizunekiko gaitasuna eta aprobetxamendua frogatzeko. Azterketa horiek eskolak ematen dituen enpresak zehaztuko ditu.
- Partaideek ikastaroetara joateko eta haiei probetxua ateratzeko konpromisoen dokumentua onartzen dute.

Ordu kredituak jarri eta kontabilizatzeko irizpideak.

- PPAk ordu-kreditua ezarriko die eskolatzen diren langile guzti-guztiei.
- Ordu kreditua kalkulatzeko, langilearen hasiera maila eta egiaztatu behar duen hurrengo hizkuntza eskakizuna hartuko dira kontuan.
- Ordu kreditua zenbatzeak ez du zerikusirik izango ikasleak izandako asistentziarekin. Emandako klase orduak zenbatuko dira eta ez langileak hartutako orduak. Zenbaketa langilearen taldearen lehenengo klase egunetik ikasturtea amaitu arte egingo da, edo, kasuan kasu, ikasleak ikastaroa behin betiko uzten duen momentura arte.
- Langile bati geratzen zaion saldoa kalkulatzeko, nahikoa izango da kenketa hau egitea: Momentu bakoitzean dagokion ordu kreditua ken hasiera mailatik emandako eskola orduak.
- Ikastaro bati hasiera eman ahal izateko beharrezkoa izango da saldoa positiboa izatea, nahiz eta ordu kreditua agortzean egon. Ikastaroak aurrera egin ahala saldoa agortu egingo zaio langileari, baina, horrela izanda ere, eskoletan jarraitu eta ikastaroa amaitu ahal izango du.
- Saldoa agortzen zaionetik ikastaroa bukatu bitartean ikasleari emandako orduak zenbatu eta kendu egingo zaizkio hurrengo hizkuntza eskakizunari dagokion ordu kreditutik.
- Udako ikastaroak ere arau orokorraren arabera zenbatuko dira, hau da, udako ikastaroan emandako eskola orduak ere ordu kreditua kontsumituko dute.
- Ikastaro egunetan egindako oporraldiek edo adostutako lizentzia eta baimen guztiek gutxitu egingo dute ordu kreditua.
- Lan ezgaitasuneko egoerek ez dute, oro har, ordu krediturik murriztea ekarriko. Hala ere, egoera horiek asko luzatzeak ikastaroa eten edo osteratu programatu beharra ekar dezake.

Ikastaroak egitea.

 <p>Pasaiaiko Portua Puerto de Pasajes</p> <p>Pasaiaiko Portuko Agintaritzaren Autoridad Portuaria de Pasajes</p>	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 8 / 10

- Langileek ikastarora joateko betebeharra hartzen dute beren gain, aurrez programatutakoaren arabera.
- Ikastaro egunetan egindako oporraldiek edo adostutako lizentzien kasuan, galdutako ikastordu kopuruaren arabera, oporraldiak ikastaroa eten edo ostera programatu beharra ekar dezake.
- Saihestu ezineko lan eginbeharrek ikastarora joatea galarazten dionean, Giza Baliabideen Sailari jakinarazi behar zaio eta horretarako prestatutako agiria aurkeztu.
- Ikastarora huts egindako egunak, zurituta izanik ere, zentzuzko neurri batetik gorakoak izateak ikastaroa galtzea ekar dezake. Era berean, eguneroko ikastarora behin eta berriz berandu iristeak ikastaroa bertan behera utzi beharra ekar dezake.
- Asistentzia arazorik ez izan arren, eskolan jarrera guztiz ezkorra duten langileek ikastaroan jarraitzeko eskubidea gal dezakete.

Ikastaroen etenaldia.

- Langile batek ikastaro bat utzi behar izanez gero, dagokion agiria bete beharko du eta horren kopia bana helarazi Giza Baliabideen Sailera. Horrela eten ahal izango da, bakarrik, ordu kredituaren kontaketa.
- Bestetik, langileek gutxienez %80ko asistentzia izan beharko dute diharduten ikastaroan. Ondorioz, ikastaroa hasi ondoren, langileak huts egindako orduak ikastaro osoaren %20tik gorakoak direnean, PPAk baja eman ahal izango dio langileari eta honek utzi egin beharko du ikastaroa.


Enpresaren prestakuntza plana

Enpresaren prestakuntza planean parte hartu ahal izango dute honako hauek:

- Lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe daukaten langile finkoak, ikastaroak egiteko ordu kreditua dutenak eta hura agortzen duten bitartean.
- Hirugarren HE - 4. maila (bigarren HETik - 3. mailatik hasita) lortu nahi duten langileentzat, ikastaroak egiteko ordu kreditua dutenak eta hura agortzen duten bitartean.
- Laugarren HE - 5. maila (hirugarren HETik - 4. mailatik hasita) lortu nahi duten langileentzat, ikastaroak egiteko ordu kreditua dutenak eta hura agortzen duten bitartean.

Baldintzak:

1. Aipaturiko langile horiek eskubide eta lehentasuna izango dute euskarako ikastaroak lanorduen barruan eta lan lekuan egiteko eta ez dute matrikula gasturik ordaindu beharko esleitutako ordu kreditua agortu arte.
2. Enpresak orduen %75 jarriko ditu eta langileak orduen %25.
3. Esleitutako ordu kreditua agortu eta hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez badu langileak, lanorduz kanpo egin beharko du euskara ikastaroa eta bere kargu hartu beharko du matrikularen kostua.
4. Langileak lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duenetik aurrera euskarako ikastaroetara joan nahi badu hurrengo atalean zehaztutakoaren arabera egin beharko du (lanorduz kanpoko euskara ikastaroak).
5. Enpresak lanpostuan euskara erabiltzea eskatu ahal izango du, eta prozesua amaitu dutenen kasuan, euskaldun gisa identifikatzea ere bai.
6. Euskara Batzordearen txostena aztertu ondoren, langile batek dagokion gaitasun maila lortzeko beharrezkotzat jotzen diren eskola orduak jaso eta ez baditu

	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 9 / 10

azterketak gainditzen, ezingo du enpresaren prestakuntza planaren barruan jarraitu.

Giza garapenerako plana

Enpresaren giza garapenerako planean parte hartu ahal izango dute honako hauek:

1. Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langile finkoak, ikastaroak egiteko ordu kreditua dutenak eta hura agortzen duten bitartean.

Baldintzak:

1. Aipaturiko langile hauek ez dute eskubide eta lehentasunik izango euskarako ikastaroak lanorduen barruan eta lan lekuan egiteko baina Pasaia Portuko Agintaritza horretan ahaleginduko da. Ez dute matrikula gasturik ordaindu beharko esleitutako ordu kreditua agortu arte.
2. Euskarako ikastaroa ohiko lan lekua ez den beste lekuren bat izanez gero enpresak joan-etorrietarako ordu erdi aitortuko dio langileari.
3. Enpresak orduen %50 jarriko ditu eta langileak orduen %50.
4. Esleitutako ordu kreditua agortu eta hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez badu langileak euskara ikasten jarraitu ahal izango du baina enpresak orduen %25 jarriko du eta langileak orduen %75 jarri beharko du.
5. Enpresak lanpostuan euskara erabiltzea eskatu ahal izango du, eta prozesua amaitu dutenen kasuan, euskaldun gisa identifikatzea ere bai.
6. Euskara Batzordearen txostena aztertu ondoren, langile batek dagokion gaitasun maila lortzeko beharrezkotzat jotzen diren eskola orduak jaso eta ez baditu azterketak gainditzen, ezingo du enpresaren prestakuntza planaren barruan jarraitu.

Portuko Agintaritzak, bere Prestakuntza Planaren barruan, urteko lanaldiaren %1 inguru zuzenduko du euskarazko prestakuntzara.

Euskara Batzordeak, ezarritako lehentasunak eta mugak kontuan izanik, Prestakuntza Planeko partaideak proposatuko ditu interesatutako langileen artetik. Aipatu mugengatik Prestakuntza Planean parte hartu ezin duten langileek, giza garapenerako planean zehazturiko moduan jaso ahal izango dute prestakuntza.

Pasaia Portu Agintaritzak lantokian bertan antolatuko ditu ikastaroak, partaide kopuruak hori ahalbidetzen baldin badu. Bestela, partaideak prestakuntza zentroa aukeratu ahal izango du.

Barnetegietan ikastaro trinkoak egin nahi dituzten langileen eskaerak ere kontuan hartzen dira.


5.3. Kontratazio berriak eta barne sustapena

Deialdi guztietan, kontratazio berrietan nahiz barne sustapenetan guztizko puntuazioaren %10a euskararen balioespenerako gordeko da. Euskara ezagutzak meritutzat joko dira, gaitasun maila derrigorrezkoa den lanpostuetan izan ezik; kasu horretan, balioespena oposaketa fasearen barruan sartuko da.

%10a lanpostu bakoitzari dagokion gaitasun maila gaindituz gero lortuko da; beste gaitasun maila batzuentzat tarteko puntuazioak ezarri ahalko dira.

Aipatu maila ziurtagiri ofizial baliokideak aurkeztuz frogatu ahalko da, edo xede horretarako egiten diren azterketen bidez. Gaitasun maila baxuagoa izanik puntuazioaren %10a lortu nahi duten izangaiek azterketa egin ahal izango dute.

Barne sustapenetan, euskara ezagutzengatik puntuazioaren %10a emateaz gain, %2 gehiago emango da enpresako Euskara Planean aktiboki parte hartzeagatik.

	EUSKARAKO GAITASUNA COMPETENCIA EUSKERA	PHK-PGL-004 Ber / Rev. 00
		Data / Fecha: 2009-06-25 Ber / Rev. 00
		Orrialdea / Página: 10 / 10

5.4. Jarraipena eta Ebaluazioa

Prozedura hau betetzea, horren jarraipena egitea eta etengabe hobetzea PPAko langile guztien erantzukizuna da. Euskara Batzordeak egiaztatuko du hori eta horretako honako neurketa hauek egingo dira urtero.

6. GAIARI BURUZKO AGIRIAK

- FHK-FGL-038 “Lanpostuen Hizkuntza Eskakizuna / Perfil Lingüístico de los puestos de trabajo”
- FHK-FGL-039 “Langileen Hizkuntza Eskakizuna / Perfil Lingüístico de los trabajadores”

7. ERANSKINAK

	OINARRIZKO ESKAKIZUNA 1. MAILA	1. ESKAKIZUNA 2. MAILA	2. ESKAKIZUNA 3. MAILA	3. ESKAKIZUNA 4. MAILA	
Ahozko komunikazioa	Eguneroko gaiei buruz galderak erantzuten ditu. Ezin du elkarrizketa bat mantendu.	Oinarrizko maila duten elkarrizketetan parte hartzen du. Bere lanaren ohiko jardueretan erantzuten du.	Bileretan eta eztabaidetan parte hartzen du, informazioa eta iritziak ematen, bere postura defendatzerakoan zailtasunarekin.	Ongi edozein egoeraren aurrean.	
Ahozko ulermena	Esaten diotenaren zentzu orokorra ulertzen du.	Mamia ulertzen du, ñabardurak jaso gabe	Ohiko gaien artean anitza da ulertzen dituenaren sorta		
Idatzizko komunikazioa	Ohiko inprimakiak betetzen ditu	Inprimakiak, oharrak,.. ulertzen ditu, dokumentuak sailkatzen ditu, manualak kontsultatzen ditu,...		-	
Idatzizko ulermena	Ohiko inprimakiak ulertzen ditu	Testu errazak		Eskutitzak, dokumentuak, laburpenak... Idazten ditu euskaraz ikasi izan balu bezala.	
Gramatika		Oinarrizko menperatze maila / Akatsak batez ere ez ohiko gaietan	Menperatze ona/ Ez ohiko gaietan hutsak egin ditzake.	Menperatze osoa	
Ahoskera		Erdal kutsuarekin	Euskara ama-hizkuntzatik gertu	Ona	
Lexikoa	Eguneroko lexikoa ulertzen du	Bere lanean ohikoa dena ondo ezagutzen du/ Idatzeko hiztegia behar du		Erdaratik kutsu gutxi	
Hitz-jarioa			Euskara ama-hizkuntzatik gertu	Guztia	
IVAP	-	1 HE	2 HE	3 HE	4 HE
Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratua	-	B-1	B-2	C-1	C-2